

# Gogoan hartu damutu baino lehen

Seguru egoteko, ☺  
fidatu zure artekariarekin.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu.

Hileroko buletina  
Nº 23 / Urtarrila 2015

## Erne! Animalia bat harrapatzen baduzu, zurea da errua! Bai edo bai!



Osteguna da, arratsaldeko zazpiak, eta ilun dago, neguan baikaude. Lasai-lasai gidatzen zoaz, errepidean barrena, eta bost basurdek gurutzatzen dute: aitak, amak eta 3 basurdekumek. Onena bolanteari kolpe zakarrik ez ematea eta zuzen jarraitzea dela irakurri duzu nonbait. Balazta zapaldu eta ZAS! Akabo basurdeak eta akabo zure autoa. Ondo zaude.

Airbagak saltatu du, eta ezin duzu sustoa gaintetik kendu; bakarrik zindoazen, zorionez, kopilotuaren eserlekua guztiz hondatuta baitago.

Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko 6/2014 Lege berrituaren arabera "bide publikoetan espezie zinergetikoak harrapatu izanaren ondorioz eragindako zirkulazio istripuetan, ibilgailuaren gidaria izango da pertsona edo ondasunetan eragindako kalteen erantzule, eta ezingo da erreklamatu bide horietan sartzen diren animalien balioa. Istripua egunean bertan edo harrapatu baino hamabi ordu lehenago egindako ehiza larriko espezie baten ehiza kolektiboko jardura baten ondorio zuzena izan bada, ordea, aprobetxamendu zinergetikoaren arduraduna izango da pertsona edo ondasunetan eragindako kalteen erantzule, edo bestela, lur-sailaren jabea. Bide publikoaren titularrak ere izan

daiteke erantzule, istripua itxitura-hesia epearen barruan konpondu ez izanagatik edo, ibilgailuek animalia askeekin talka egiteagatik, istripu-tasa handia duten bide-zatietan animalia askeen inguruko seinalizazio espezifikorik ez edukitzeagatik izan bada."

Erne datuari! Gidarion %94k ikusi ditugu animaliak errepidean. Erdiak arrisku-egoera batean egon gara animalia batengatik, eta gidarien %6k, gutxi gorabehera, istripu bat izan dute; **17.000 istripu baino gehiago izan dira horregatik urtean, eta kalte materialak ez ezik, heriotzak eta zauri larriak eragin dituzte.**

**Praktikan, arrazoi horregatik istripua izaten duten gidariek ez dute inolako kalte-ordainik jasoko zauriren bat izaten badute, nahiz eta zirkulazio-araurik ez urratu; heriotza kasuan, euren familiek ere ez dute kalte-ordainik jasoko. Eta, gainera, euren autoko bidaiarien zaurien edo heriotzaren erantzule izango dira. Nolanahi ere, hainbat konponbide eskain diezazuegu zure ibilgailuaren kalteak eta gidaria babesteko. Kontsulta diezazuegu beldurrik gabe.**

"Behartzea, debekatuta".  
Espainiako Bankuak bankuen "langabezia" aseguruaren inguruan ohartarazi du.

**Espainiako Bankuak bankuek Ordainketak Babesteko saltzen dituzten aseguruaren inguruan ohartarazi du;** aseguru horiek mailegu baten kuoten ordainketa bermatzen dute langabezia, lanerako ezintasun, gaixotasun edo heriotza kasuetan.

"Memoria del Servicio de Reclamaciones 2013" txostenaren arabera **"Kontratatzeko unean erreklamaziogilearen baldintzetara egokitzen ez diren Ordainketak Babesteko aseguruaren salmenta izaten da erreklamazioen arrazoi nagusia"**. Alegia, kobratu EZIN izan duten aseguru bat kontratatatu zuten, kontratua egin zuten unean ez zituztelako baldintzak betetzen.

Hala, Espainiako Bankuaren iritziz, "bere bezeroaren interesak zaindu behar ditu entitateak, eta hitzartutako baldintzak betetzen ez dituzten kasuak identifikatu behar ditu"; beraz, "jardunbide egokien eta ohitura finantzarioen kontrakoa deritzo bankuen jardura batzuei".

**Suteen kontrako aseguruak bakarrik da "derrigorrezkoa"**

Hipoteka sinatzen duzunean, hainbat produktu kontratatzerak behartzen zaitu bankuak. **Jakizu sutearen kontrako aseguru (edukitzailearena) bakarrik dela derrigorrezkoa, Hipoteka Legearen arabera, higiezina delako kobrantzaren bermea. Hala ere, zure bankuak EZIN zaitu behartu bere aseguru-etxearekin kontratatzerak, ezta aseguru "atxikiak" kontratatzerak ere; zure esku dago ERABAKIA.** Europar Batasunak horren inguruko zuzentarau bat onartu zuen, Espainiak 2016ko apirila baino lehen onartu beharrekoa.

**Ikasi "EZ" esaten.** Zure beharrak aztertuko ditugu, aukera guztiak konparatuko ditugu, eta zure egoerara gehien egokitzen dena aukeratu ahal izango duzu. **Modu objektiboan lagun diezazuegu.**

## 2015eko Zirkulazio Araudi berria Europa seguruago baten alde



Urte berriarekin, Zirkulazio Araudi berria. Datozen hilabeteetan, Bruselak Europar Batasuneko herrialdeak bateratzeko onartutako erreforma sartuko da indarrean. Helburua da segurtasuna areagotzea eta ibilgailu motordunen, bizikleten eta oinezkoen arteko elkarbizitza sendotzea.

### Bizikletak

Hiriguneetan, gehieneko abiadura muga 30 km/h da, eta derrigorrezkoa izango da 16 urtetik beherakoentzat kaskoa eramatea. Hiriarteko bideetan, DENOK (16 urtetik gorakoak eta beherakoak) gaude behartuta kaskoa eramatera. EZ da edan behar, noski, eta EZ da aurikularrik eraman behar, EZ eta telefono mugikorretik hitz egin behar ere..

### Motozikletak eta ziklomotorrak

Desagertu egiten da kaskoa "osasun exentzioagatik" ez erabiltzea, eta debekatu egiten da homologatu gabeko kasko "zertifikatu"en erabilera. Salbuespen gisa, 7 urtetik gorakoak laguntzaile moduan joan daitezke, ibilgailu horien gidariak euren gurasoak, legezko tutorea edo adinez nagusi diren pertsona baimenduak badira.

### Autoak

Bide segurtasunak justifikatu gabeko segurtasun uhalen inguruko exentzioak desagertuko dira (atzerako martxa edo aparkatze maniobrak). Zerbitzua hiri handietako hiriguneetan ematen ari diren taxiek euste-gailu homologaturik erabili behar izan gabe eraman ahal izango

dituzte 135 zentimetroko altueratik beherako pertsonak, atzeko eserlekuan badoaz, betiere.

### Abiadura

**Autobideak eta autopistak:** 120 km/h-ko muga generikoarekin jarraituko da, baina 130 km/h-ko zatiak ere egongo dira, panel argidunekin seinalezatuta. Ez dira finkoak izango, errepidearen baldintzen arabera aldatuko baitituzte.

**Errepide arruntak:** 100 km/h-tik 90 km/h-ra jaitsiko da abiadura, 6,5 metrotik beherakoa bada (lehen, bazterbidearen araua aplikatzen zen). Bidea 6,5 metroko zabaleratik beherakoa bada, 90 km/h-tik 70 km/h-ra jaitsiko da abiadura. Azken kasua bereizte-lerrorik gabeko errepide estuena da, eta horietan, 50 km/h izango da abiadura (lehen, 90 km/h).

**Bigarren mailako bideak eta zolatu gabekoak:** gehieneko abiadura, 30 km/h.

**Hiri barruko bideetan:** 30 km/h-ra jaitsiko da bide bakarra badago noranzko berean, eta 20 km/h-ra, bide horretan espaloi bakarra badago.

### Beste aldaketa batzuk

- **Drogen detekzioa.** Prebentzio-kontrolatan listua detektatzea izango da prozedura orokorra.
- **DGT-ren Ahalordeteeen Erregistroa.** Pertsona fisiko edo juridikoek besteri jarduteko ematen dizkieten ahalak (isunak kudeatzeko, titulartasuna aldatzeko eta abar) inskribatu ahal izango dituzte.

Anekdotak



**"Pertsona fisiko edo juridikoek besteri jarduteko ematen dizkieten ahalak (isunak kudeatzeko, titulartasuna aldatzeko eta abar) inskribatu ahal izango dituzte"**

LZu arriskuetatik babesteaz gainera, urtea askoan bizi zaitezzen nahi dute aseguru-etxeek. Zure familia eta lagunak atzetik, eurak dira zure osasuna zaintzen interesatuenak.

Ameriketako Estatu Batuetan, New Yorkeko Oscar Insurance start-up-ak eskumuturreko bat ematen die bere bezeroei, oinez egiten duten distantzia neurtzeko, eta helburuak ezartzen dizkie egunero. **Eta osoa egitea lortzen duten egun bakoitzeko, dolar bat kobratzen dute**, gehienez ere 20 dolar hilean, Amazon opari-txarteletan. Egunean 10.000 pauso egitea da aurreikusitako helburua, 8 kilometro inguru.

Urratsak kontatzen dituen aplikazio bat ere garatu dute smartphonerako. AEBetako Osasun Publikoaren arabera, **"egunean 10.000 pauso inguru eginda, heriotza-kausa nagusi gehienak aldentzeko dituzu, obesitatea, diabetesa edo presio arteriala, adibidez"**.

**Aseguru-etxeek 1.715 milioi ordaintzen dituzte, egunean, bizi aseguruengatik**

**Insurance Europek,** argitaratutako European Insurance in Figures azterketaren arabera, **sektoreak 952.000 milioi ordaindu zizkien 2013. urtean Europako pertsona eta enpresei.**

Kopuru horren zatirik handiena **Bizi** aseguruena izan zen (626.000 milioi). Gainerakoek (Ez Bizi) 326.000 milioi batu zituen kalte-ordainetan (**103.000 milioi Autoengatik, 97.000 milioi Osasunagatik eta 57.000 milioi Kalteengatik**).

Ordainketa kopuru handi horrek aseguruaren sektoreak gizarteari emandako laguntza handia erakusten du, bai eta industria horrek osasuna eta kaudimena dituela ere.

Ikerketa